



# BERRIGARA

109. Zenb.


1993, maiatzak 28

LEXIKO  
BEREZIA  
BATZEKO  
HITZARMENA  
UDALAK ETA  
UNEDek

BERGARA  
HIRIA  
ARGAZKI  
LEHIAKETAKO  
SARITUAK  
JAKITERA  
EMAN DIRA

**KIROLAK**

2.  
ERREJIONAL  
MAILAKO  
FUTBOL  
TALDEAK  
FINALA  
ZAPATUAN



**PAZKUAK  
93**

GRUPO  
**Image  
Center** **phox**  
FOTO-VIDEO

GRUPO  
**Image  
Center** **phox**  
FOTO-VIDEO

## KIÑU

BARRENKALE, 36  
Tfnoa: 76 58 05



**MINOLTA X - 3005  
+ 28 - 70 mm  
+ POLTSA**

**34.900  
BEZ BARNE**



Zure Esku



EUSKADI



EAJ  
PNV

HOBETZEKO



BERRIGARA astekaria  
Tfnoa. eta Faxa: 76 03 97 Errotalde  
Jauregia, 20.570 Bergara

**Argitaratzailea:**  
Jardun Elkartea. Masterreka, 13  
Bergara. ☎ 76 08 19

**Babeslea:** Bergarako Udala.

**Erredakzioa**  
Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil  
eta Mikel Elkoroberezar.

**Maketazioa:**

E. Azkarate eta E. Mendibil.

**Publizitatea eta harpidetzak:**  
Alex Azkarate eta Edurne Arenaza.  
☎ 76 03 97

**Erredakzio-kontseilua:**

Iñaki Eraña, Gorka Elorza eta Alex  
Labaien.

**Kolaboratzaileak:** J. A. Mikeo,  
Estepan Plazaola, M. A.

Elkoroberezar, J. M. Elexpuru, J.  
Oregi, A. Urzelai, M. Laskurain, N.  
Alzalai, A. Lete, J. A. Bengoa, M.  
Lizarralde, Monika Belastegi,  
Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña,  
Asier Madinabeitia, Josune Iñarra  
eta A. M. Goenaga.

**Argazki laborategia:**

Pol-Pol Argazki Taldea eta Kiñu.

**Komikia eta marrazkiak:** Josu  
Okina eta Antonio Arrillaga

**Inprimategia:**

Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)

**Banaketa:** Txantxangorri Taldea.

**Copyright:**

BERRIGARA

**Tirada:** 3.300 ale.

**Lege gordailua:** SS 50/ 91

**ISSN:** 1130-6599

**BERRIGARA** ez du bere gain har-  
tzen aldizkarian adierazitako esanen  
eta eritzien erantzunkizunik.

### PROTAGONISTAK

## JUBILATUEN EGOITZA

Gaur goizean inau-  
guratzekoak ziren Ju-  
bilatuena Egoitzako ber-  
rizte lanak eta bolatoki  
berria. Joan den urtean  
martxan jarri ziren  
Egoitzaren haunditze  
lanak eta guztira, 35  
milioi pta. inguruko  
aurrekontua izan dute.

Inaugurazio ekital-  
dian, besteak beste,  
Gema Zabaleta Gizarte  
Zerbitzuetako Diputa-  
tua eta Victoriano Ga-  
llastegi herriko alkatea  
izatekoak ziren. Egin-  
dako obrak bedeinkatu  
ondoren, Jubilatuen  
Abesbatzaren saioa ze-  
goen iragarrita. Ond-  
ren luntxa bildutako  
guztientzat (Santa Ma-



rinako Parrokiko or-  
dezkeriak, Bolo Fede-  
raziokoak, obrak egin  
dituen enpresetakoak -  
URBE S.L.- edota Egoi-  
tzako zuzendariak tar-  
tean) eta, azkenik, tri-  
kitilariak. Arratsalde-  
an, berriz, ospatzekoa  
zen bolatoki berriko  
lehen txapelketa.

**Gaur inauguratzekoak ziren  
bertan eginiko berrizte lanak**

### ITURRI ONETIK

## Gabonetarako, "Los Miserables"

Musika Eskolaren 10. urteurrena ospatzeko, Victor  
Hugoren "Los Miserables" nobelan oinarritutako  
izen bereko musika muntaian lanean dihardu  
Alfredo Gonzalez Bergarako Udal Musika Bandako  
zuzendariak. Muntaian Orfeoiko eta Musika  
Eskolako kideek hartuko lukete parte eta hauekin  
batera herriko beste zenbait musikaririk, Mireia  
Osinagak, esate baterako. Obra Gabonetan  
estreinatuko litzateke.

### ESAN DUTE

"Txikitatik ari naiz  
bertsoak kantatzen.  
Kotxian aitak gaia  
jartzen zidan, eta ni  
bertsotan hasi. Ordu  
laudenean lo hartzen  
nuen."

**AINHOA  
AGIRREAZALDEGI**  
Bertsolaria  
EGIN

"Ikastolak dira herri  
honek sortu dituen  
benetako eskola  
publikoak.

Horregatik, gure  
ahalegina, Euskal  
Eskola Publiko berri-  
baten aldekoa da:  
euskalduna,  
kalitatezkoa eta  
autonomiaduna"


**AITOR ERAÑA**  
Aranzadi Ikastolako  
Gurasoen Elkartekoa  
KONTZEJUPETIK

"Alderdien programak  
baino, liderrak  
botatzen dira"

**BEGOÑA ALBERDI**  
EHuko irakaslea  
ARIZ-ONDO



Aldizkari honek  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta  
Turismo sailaren laguntza jaso du

Atsedeen zentrua

# LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

## EZPELETA

etxea

Harizko eta kotoizko  
goimailako izara eta  
mantelak

Barrenkale 44 BERGARA

## ZUBIETA

elektragintza

✓ Motorren bobinaketa  
✓ Era guztietako instalakuntzak

Kruz Gallastegi, 2 behea  
Tfnoa: 76 23 48





Las personas heridas son peligrosas.

**HERIDA**

Ostirala: 22.30.  
Larunbata: 22.30.  
Igandea: 19.30 eta 22.30.  
Astelehena: 19.30 eta 22.30.

▼ **Zinea**

▼▼ **Jeremy Irons** (*Retorno a Brideshead*), **Juliette Binoche** eta **Miranda Richardson** hiruki oso arriksutsua osatuko dute **Louis Malle** frantziarraren azken filme honetan. Zauritutako pertsonekin kontuz ibili beharra dago...

▼ **Deiak**

▼ **Hitzaldia:** "Los cien nombres del Real Seminario". Hizlaria: Emilio De Felipe. Ostiralean, ekanak 4, 19.00etan Kultur Etxean.

▼ **Farmaziak**

- ▼ **Larunbata 29:** Estella/Irizar.
- ▼ **Igandea 30:** Estella/Amezua.
- ▼ **Astelehena 31:** Mozos/Ruiz.
- ▼ **Asteartea 1:** Camacho.
- ▼ **Asteazkena 2:** Puy.
- ▼ **Osteguna 3:** Guallar.
- ▼ **Ostirala 4:** Estella.



JARDUN elkarteak astearterako antolatutako Herri Bazkaria Pertxan izango da. Prezioa 1.500 pzta.takoa da.

▼ **Ogia**

- ▼ **Igandea 30:** Konde.
- ▼ **Asteartea 1:** Bolintxo.

**FANCY**

GAZTEEN MODA! Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa; 77 14 24

**ONENA**

TINDATEGIA

Barrenkale 29, BERGARA

**SANTOS IRRATI-TB**

ELEKTRO TRESNAK • ARGIZTAPENA

**Zuek** Sukalde altzarien erakusketa

Masterreka, 2 BERGARA ☎ 76 26 10

**KIZKUR**

 **Ileapaindegia Solariuma**

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32





# ARANETA E.M.


Aitziturri, 6 San Lorenzo Poligono Industriala  
Tfnoa: 76 07 02 - 77 04 95. Faxe: 79 95 13

- Suteen kontrako material eta ekipamenduen salmenta.
- Aholkularitza teknikoa.
- Suitzalgailuak bete eta mantentzea.
- Sua detektatu eta itzaltzeko instalazio automatikoak.  
**NEKAZARITZARAKO ETA  
ETXERAKO UR PONPA  
INDUSTRIALAK.**



- INDUSTRIA
- ERAIKUNTZA PUBLIKOAK
- GARAJEAK
- JABE-ELKARTEAK

**Argitarapen honen edizioko laguntzaile:**



**Kutxa fundazioa**

gipuzkoa donostia kutxaren  
gizarte-ekintza



### Zinegotzien bidaiak

Bergarako baserritarrok, kezkatu-rik gaude aspaldidanik. Badugu gure artean edota gure herrian baserritar-ron zinegotzi bat, auzoetako arazoak kon-pondu eta nekazariei laguntzea duena bere lehen eginbeharra. Gertatzen zaiguna tristea da: gure zinegotziak ez ditu ez Bergarako auzoak ez nekazarion bizimodua, ezta behi, ardi, baratza edo nekazariokin lotuta dagoen ezer ezagutzen.

Halere oso ondo ezagutzen du bi- daiatzea zer den. Orain dela 3 hilabete Italian Mendi Nekazaritzako bidaia zela eta. Ze "chollo" a zinegotzi izatea Uda- letxe honetan, nekazarion diruarekin Europa osoa ezagutzuz!! Zeren segu- raski Bergarako nekazariei ez zaigu iri- tsiko bidaia horien berririk, txostenik ere ez azalduko zer ikusi duen edo ze proiektu izango lirakeen baliagarri gure herriako e.a. ezagutzeko. Herria jaso nahi badugu, hain garrantzitsu den urte honetan nekazariok, ze papel es- tratejiko betetzen dugun jakin behar dugu, eta baita herriko arduradunek ere, nekazal politika egiten baitira maila ba- tetan, baina zertan eta non ari garen jakinean, pertsona prestatuak jarriaz. Udaletxearen jokabideak izen bat du: "arro" baina ez "ondo".

Bukatzeke agur bero bat hiritar guztiei eta aholkutxo bat hiriko jaiak gainean ditugularik: kalitatezko produktuak dastatuaz igaro (bertako

haragia, barazkiak, e.a.) eta kalimotxo eta txanpain kopa batzuen ondoren herriko mendi eta auzoetatik, ingurugiroa balora- tuz paseatxo bat eman ezazue, eta ondo pasa. Agur eta beste bat arte.

**Balentin Gabilondo**

### Zezenmania?

Pasa den astean nire eskuetaraino Pentekoste jaietako egitaraua heldu zen. Orriak pasa eta nire harriduratik ez nuen irtetzerik lortu. Lasaitu, pentsatzen hasi eta berehala aurreko ostiralean Berrigar- an irakurritako zenbait lerro etorri zitzaizkidan burura. Lehenengo idatzi bateko lerroak Udaleko arduradunek esandakoak omen ziren "Udalak argi utzi zuen beraiek ez dutela txekorketa antolatzen, laguntasuna eman dutela bakarrik adierazi zuten". Gu- tunetan azaltzen zen idatzi baten lerroek sinesgarritasun gehiago merezi dutelako- an nago, jaietako egitaraua ikusi eta ge- ro.... "beraiei apoio guztia eman diete. Udalak antolatzaile lanak egin dituela kontuan hartu behar da. Beraz, lagundu ezezik antolatu ere egin du". Lotsagarria iruditzen zait Udalak azaldu duen jarrera. Bestela nola ulertzen da zezenketak ir- gartzen dituen karteletan Udalaren izena azaltzea antolatzaile bezela? Jaietako egitarauan (edo zezen korriden egitaraua esan beharko nuke). Argi eta garbi azaltzen da Udalak "emandako lagunta- suna". Arren serioak izan zaitezte eta

onartu ezazue kulturaren izenean hanka sartu duzuela. Ea beste ekitaldi batzuk indar eta gogo berdinarekin "bultzatzen" dituzuen. Bidean elkar ikusiko dugu.

**Aitor Aranzabal**

### Gure jarrera

Berehala Bergarako Pazkuak dato- zela eta, Bergarako Herri Batasunak iaz aurreratu bezala aktu ofizialetan ez duela parte hartuko gogorarazten dizue.

Ezin gara Elizara, San Martzialera, edonora Udal Gobernu ekipo honekin joan, Udal jesiioaren inguruan ere ikusi nahi ez gaituztenean. Herri Batasuna itxurakerietan ez da ibiliko inorekin, are gutxiago "itxurak bakarrik" gorde nahi dituztenekin. Edozein modutan honen bitartez, jaiak alaitasunez eta pozez pasa ditzazuela opa dizuegu eta egun hauek egunerokotasunetik ateratzeko egokiak izan daitezela.

**Bergarako HB**

### Zuzenketa

Joan den asteko alean Aranzabi Ikastolari buruzko erreportai- an J. M. Larrañagaren ahotan jarritako hitzak, Batxilergo Institutoko zuzendaria den Ramon Osinagak esandakoak ziren. Barkamenak biei akats honegatik.

## Tiira ba!



Josu Okina





## Herriko lexikoa batzeko hitzarmena sinatuko da UNEDerekin

### Trafiko aldaketak

Bergarako jaieetan, oinezkoen segurtasunari begiratu, zenbait trafiko aldaketa izango dira. Artekale kaleko trafikoa mozketara, eta barraka gunean izango dena kontutan harturik, ezinbesteko bidaiak ez ezik kotxea ez erabiltzea eta egin beharreko bidaiak bariantetik egitea gomendatzen da.

### Zozketa

San Pedro kaleko dendarien zozketan 24.933 zenbakia saritua izan da. Boletoren jabeak Lasa Jatetxean 4 pertsonarentzako afaria irabazi du. 15 eguneko epean sariduna agertuko ez balitz zozketa errepikatuko litzateke.

Bergarako Udalak eta UNEDek Bergarako lexikoa berezia batzeko hitzarmena sinatuko dute, asteleheneko ez-ohizko Plenoan aho batez erabaki zenez. Akordioaren ardatz nagusia euskararen hainbat arlotan (arotzeria, igeltseritza, ehungintza...etab.) galtzeko zorian diren hitzak jasotzea litzateke eta, besteak beste, Miren Azkarate euskaltzaina eta Xarles Bidegain izango dira hitzarmenaren Jarraipen Batzordean.

Bestalde, Labegaraie-tako Kiroldegiko taberna eta igerilekuetako sauna, masaia eta solariumaren zerbitzuak ustiatzeko baldintzak onartu ziren. Era berean, txoznen instalazioa eta mahai edota aulkiekin lur-zoru publiko okupatzeko arautegiak alderdi guztien oneritza jaso zuen, Herri Ba-



UNEDerekin egingo den hitzarmena aho batez onartu zen astelehenean.

tasunaren abstentzioa ezik.

Haziendako hainbat gastu-proposamen onartu ondoren, Jose Luis Elkoro HBko zinegotziak bere alderdiak aurrekontuak aurkeztu arte ez zuela partida gehiago onartuko aurreratu zuen. Era berean, Plenoak konbokatzearen sistema sa-

latu zuen, hiru hilabetean behin Plenoak egitea gutxi iruditzen zaiola eta sarriago egin beharko liratekeela adieraziz. Victoriano Gallastegi alkateak sistema ona dela eta ez-ohizko plenoak premia dagoen bakoitzean konbokatuko direla erantzun zion.

## Epaiketa polemikoa

Asteazkenean Bergarako Epaitegian tratatu txarrenatik apaiz karmeldar baten kontra bere koinatak jarritako salaketa aztertu zen. Emakumeak, Elgetakoa bera, salatu duenez, bere senarrarengandik banatua zegoen eta pentsiorik ordaintzen ez zionez, diruaren bila senarraren etxera joan eta senarrarekin zegoen bere anaiak, apaizak, emakumea jipoiu zuen. Epaitegiaren aurrean, Egizanen deiari jarraituz, enkartelada bat burutu zen. Azkenik, emakumeak salatutako gertaerak ezin izan ziren frogatu eta apaiza kargurik gabe, aske gelditu zen.



## BERGARA BOLTSAK

- ✓ Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, narruzkoak, nylonezkoak, lonazkoak, etab.
- ✓ Denetarikoko konfekzio industrialak
- ✓ Zuzeneko salmenta publikoa

Santalaitz 1,

Tfnoa: 76 57 69

Faxa: (943) 76 55 66

BERGARA



**Udaleku irekiak uztailean**

Kikaundi aisialdirako taldeak eskolaurreko 3 urtetik 14 urtera bitarteko gaztetoentzat udaleku irekiak antolatu ditu uztaileko goizetarako, euskaraz, jolasak, irteerak, eskulanak etab. luze bat eskeiniz. Izen-ematea ekainaren 9ra arte egongo da zabalik Kikaundi Ludotekan (Aranzadi Ikastolako 2. pisuan) 5 t'erdietatik 7 t'erdietara eta kuota 3.000 pta.koa izango da. Haur kopurua mugatua izango da.

**Jubilatuak Burgosera**

Bergarako Jubilatuen Egoitzak Burgosera irteera bat antolatu du ekainaren 14rako. Irteera goizeko 8etan egingo da eta Miraflores Cartuja, Mona eta Huelgas bisitatuko dituzte. Bazkaria ordubiak eta laurdenetan izango da, ondoren Katedrala ikusi, arratsaldea libre eta 7.30etan buelta. Prezioa 1.700 pta.koa da eta izena emateko epea ekainaren 9an bukatuko da, Jubilatuetan bertan edota 762140 telefono zenbakian. Plaza mugatuak izango dira.



Hauteskunderako publizitatea agindutako lekuetan bakarrik jarri ahal izango da.

**Hauteskunde kanpaina martxan**


*Alkatearen bandoan publizitaterako tokiak zehaztu dira*

Victoriano Gallastegi Bergarako alkateak kaleratutako bandoan dotozen hauteskunde orokorretarako kanpaina barruan kartelak jartzeko lekuak eta orduak jasotzen dira. Kartelak dohainik jarri daitezkeen tokiak honako hauek dira: Kiroldegi gunea, Mariaren Lagundiko pareta, Torrekuua, Frontoia, Matxiategi, San Lorentzoko eskolako pareta, Bolu, Osintxuko eta Uberako pelotalekuak eta Angiozarreko Elizako pareta. Pankartak: Ozaeta Jauregia, Espaloia, San Pedro, Boluko plazoleta, Gasolindegiko

bidegurutzea, Santa Marina ingurua, Simon Arrieta, Torrekuua, San Antonio, Bidekurutzeta, Burdiñate, Zubieta, Agorrozingo zubia, Eroskiko gunea, Barrenkale, saiheshidearen irteera (Torrekuua). Farolak: San Antonio-Mahasterreka, Poligono Industrial, Matxiategi, Fraiskozuri-Ibargarai, Espaloia, Zabalotegi, Torrekuua eta Boluko gunea. Erantzukizunei dagokienez, indarrean dagoen normatiba betetzen ez bada, Udalak publizitatea erretiratuko du gastuak dagokion kandidatek erantsiz.

**Aldoka Maldoka TABERNA**

Kruz Gallastegi, BERGARA



**JAUJA KIROLAK**  
Irizar 2, Tfnoa: 76 14 95

**N  
-  
N  
-  
I  
-  
K  
-  
A**

Loreak mundu osoan



**INTERFLORA**

**ZORIONTSUAK IZAN, ETA JAIK PRIMERAN IGARO DITZAZUELA!!**

**L  
O  
R  
A  
D  
E  
N  
D  
A**





Agustin Gurrutxagaren argazki honek zuribeltzean 3. saria lortu du.

## Bergara Hiria Argazki Lehiaketa

*Felipe Loiola eta Julian Redondo izan dira irabazleak*

Bergara Hiria IX. Argazki Lehiaketako epai-mahaiak jakitera eman ditu saritutako lanak; kolorezkoetan, Felipe Loiola eibartarrak irabazi du lehen saria, Errenteriko Angel Perez bigarren sailkatu da eta Agustin Gurrutxaga bergararrak, berriz, 3. saria eskuratu du. Herritar onenaren saria Benito Canterok eraman du.

Zuribeltzeko kategoriari dagokionez, Julian Redondo bilbotarra izan da lehena, Felipe Loiolak bigarren saria lortu du, Benito Cantero hirugarren gelditu da eta he-

rritar onena Juan Tabares izan da.

Azkenik, Bergara Berezia ize-neko kategorian, Jose Luis Feo Pol-Pol Argazki taldeko arrasatear ki-deak irabazi du. Guztira, parte hartu duten 35 partaideek, 171 argazki aurkeztu dituzte, 92 koloretan, 68 zuribeltzean eta 11 Bergara Berezian. Katgoria bakoitzeko lehen hirurek 20.000, 15.000 eta 10.000 pta. gehi trofeo bana jasoko dute eta herritar onenek zein Bergara Bereziako irabazleek 10.000 pta. eta trofeoa. Sari bana-keta ekainaren 5ean egingo da.

## Igandean San Esteban-Elkoartiko jaia

San Esteban-Elkoartiko jaia ospatuko da igandean, Paskua domekan. Goizeko 11 terdietan kanpai-hotsa eta etxafleru jaurtiketa, 12etan auzo meza eta ondoren salda eta pintxoak banatuko dira. Segidan erromerixia eta egundoko kukañak. Amaitzeko, gelditzen diren etxafleruak jaurtiko dira.

## Papera batzeko ontziak

Langileei lana errezteko asmoz, Deba Garaiko Mankomunitateak paper hondakinak ontzietan hondakinak sartzeko eskatu du, askotan, lekua egonda ere, jendeak kanpoan uzten bait ditu.

## Igerilekuan eguzkitara

Udal Kirol Zerbitzuak jakin arazi duenez, datorren ekainaren 2tik aurrera eta udako denboraldia ofizialki hasi arte, kanpoko igerilekuen alboko berdeguneetara nahi duena sartu daiteke eguzkia hartzera.

**CONSUM** EROSKI

**BERRIZTE LANAK EGIN ONDOREN,  
ZABALDU BERRIA**

**HAUNDIAGOA ETA  
EROSOAGOA**

**JAI ZORIONTSUAK IGARO DITZAZUELA**

**Garnish**

**Bitxitegia**

San Pedro 12, Tfnoa: 76 03 57

**Kabutzia**

**ARRAINDEGIA**

Fraiskoziuri 6, Tfnoa: 76 56 62



# PESA

☎ 76 16 46 BERGARA  
☎ 76 14 19 ARRASATE

## ASTEBUKAERA LOURDESEN

- 3 izarretako hotelean
- Autobusa
- GUZTIA: 6.300 pzta.

**ONDO PASAU JAIXETAN !!**

# BASTER

Emakumearentzako arropa eta moda



**OSAGARRIAK  
TAILA  
GUZXTIETAN**

**ZATOZ  
PROBATZERA**

**TELEFORO  
ARANZADI, 2  
☎ 76 10 08**

**JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU**



# ASKAGAIN

## Lagunen artean eraikitakoa

Askagain elkarteak Gorla gainean dauden elkartetako bat da. Bere sorrerari buruz galdetzean, honako hau azaldu ziguten Askagaineko bazkide diren Antonio Iñarra, Jose Gorrotxategi, Jose Ibarra, German Balanzategi, Pedro Narbaiza eta Imanol Azpiazuk.

Lagun batzuk lursail batzuk erositako zituzten orain elkarte dagoen lekuan. Beranduago, beste lursail zati bat erosi eta horrela sortu zen elkarte egiteko asmoa.

Elkarteak egin zutenean, izena asmatzen hainbat buelta eman ondoren "Askagain" aukeratu zuten. Izen honek badu bere azalpena ere: elkartearen behelaldean, lehen Elosuko aska deitzen zitzaion aska bat dago. Elkarteak aska honen gainean dagoelako datorkio Askagain izena.

Askagain elkarteak 15 lagunek egin zuten, eta gaur egun bazkide berdi-

nek jarraitzen dute. Ez da jende berririk sartu, bazkide denak kuadrilakoak bait dira. Askagainen ez dago bazkide jubilatutik, gutxi bait dira, ez eta ohorezko bazkiderik ere. Bazkideen batzabesteko adina 63 urte ingurukoa da.

Diru kontutan sartuaz, Askagainen urtean 50.000 pztak eta 75.000 pztak inguruko kaja batzen dute. Esan digutenez, ez da mugimendu handirik izaten elkartearen. Bazkide gutxi izateaz gain, negu aldean ez dira ia elkartera joaten. Eguraldi onak hasten direnean, mendi ibili bat eginaz aprobe-



Askagaineko bazkideak.

txatzen dute elkarteak.

Hilean 1.500 pztako kuota ordaintzen du bazkide bakoitzak. Falta kontutan oso ondo dabil-tza, ez bait dute faltarik izaten.

Elkarteak zabaldu zeneko urteurrenean ospatzen dute Askagainen el-

karteko eguna. Apirilaren 22a aste barruan bada, aurreko edo hurrengo jai egunean ospatzen dute bazkari batekin.

Lehen Gorla gaineko elkartearen artean txapelketak eta horrelakoak ospatzen zituzten, baina aspaldian ez da horrelakorik egiten.

Sukaldari trebe bezala Jose Gorrotxategi eta German Balanzategi aipatu dizkigute. Lehenengoaren espezialitatea bildotsa eta erreki guztiak omen dira, eta bigarrena-rena berriz, arroza.

*Ainhoa Lete*

### FITXA TEKNIKOAK

**SORTU:** 1972.eko apirilaren 22an.

**BAZKIDEAK:** 15.

**HELBIDEA:** Elosu auzoa.

**PRESIDENTEA:** Antonio Iñarra.

**ELKARTEAREN EGUNA:** Apirilak 22.

**URTEKO KUOTA:** 18.000 pztak.

TAPIZERIAK  
MOKETAK  
ALFOMBRAK



Kruz Gallastegi, 9  
☎ 76 07 37

**LARREA**

**TABERNA**

Kale Barren 17  
ANTZUOLA

**LONBIDE**  
**OINETAKOAK**



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 **BERGARA**

**SURPE**  
**Taberna**

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97  
ANTZUOLA





**ZABETX**  
INSTALAZIOAK

Masterreka, 14 BERGARA

☎ 76 54 14

**BEROGAILU,  
GAS  
eta  
ITURGINTZA  
AZTERLANAK**

**BAINU  
DISEINAKETA**

## **BERGARAKO UDAL PELOTALEKUA**

### **LARUNBATA**

- Ansotegi-Astarloa / Arteaga-Andueza VI.
- Urionaguena-Galarza / Etxaniz-Tolosa.
- Gabilondo-Buenetxea / Loiarde-Alberdi.

### **IGANDEA**

- Goñi-Oregi / Balerdi-Urrutia.
- Unanue-Errasti / Koka-Zezeaga.
- Kalonge-Badiola II.

### **ASTELEHENA**

- Retegi III-Andueza VI / Lujanbio-Alberdi III.
- Tolosa III-Retegi IV / Lejardi-Aldazabal.
- Gabilondo / Badiola.

### **ASTEARTEA**

- Soroa III-Astarloa / Ansotegi-Oregi.
- Pentekoste txapelketako FINALA.
- Urzainki-Errasti II / Intxaurren-Andueza VI.

## **JAIETARAKO PELOTA PARTIDUAK**



## ALKATEAREN AGURRA

Aurten ere, une hau aprobetxatuz herritar guztiak agurtzen zaituztet, eta biohotzez opa dizuet jai hauek denon gustokoak izan daitezela, eta ekar dezatela gure artera alaitasuan, urten zehar sarritan izaten ditugun nahigabeak ahazteraziz.

Izan bitez ongietorriak jai hauetan gure herrira hurbiltzen diren guztiak eta har bitzate nire agurrik beroenak, arrazoi bat edo beste dela medio, gure artean ezin egona duten bergarar guztiak ere.

**Victoriano GALLASTEGI**



**Iletxo**

Ileapaindegi  
mistoa

**BEGOÑA ARZELUS**

Fleming Doktorea, 7 ☎ 76 53 15  
20570 BERGARA

**BILBAO  
ASEGURUAK**



**IÑIGO JUARISTI**

Artekale, 18 b  
Tfnoa eta faxa: 76 08 71 BERGARA

**PAZKUAK**




**SAN JUAN BERGARA**

☎ 76 35 51



# Maiatzak 28


## OSTIRALA



## Nire gomendioa

AITOR ARAKISTAIN "Popi" Tabernaria.

Jendeak gogo haundiarekin hasten ditu jaiak eta onena, lehenbizi, Bitorianatxoren jeitsiera animatzea litzateke. Gero kuadrilarekin juntau eta afari-meriendatxo bat egin, gauzez indartsu egoteko. Eta jarraian kontzertua: "El inquilino Comunista" rock talde ona da eta Spokek ez du oraindik formazio berriarekin Bergaran jo. Ikusi behar. Eta ondoren juerga, jendeak gustokoen dituen tokietan...



**19.45:** San Martin Plazan jaiei hasiera emango zaie, **Xamatx** dantza taldeak eskainiko duen Ikurrin dantzarekin.

**20.00:** Etxaflegu jaurtiketa eta **Bitorianatxoren** jeitxiera. Ondoren, **Udal Musika Bandak** kalejira egingo du herriko kaleetatik zehar.

**20.00:** Bideberrin jarritako **txoznak** irekiko dira. Aurten sei txozna ipini dira: Jardun Elkartea, Lanbide Hezkuntza Eskolako ikasleak, Batxilergo Institutuko ikasleak, Txapa Irratia, Amnistiaren Aldeko Gestora eta Zutik taldearenak.

**20.30:** **Barrakak** irekiko dira Beheko Estazioan.

**23.00:** **Arkaitz** taldeak alaitutako dantzaldia San Martin Plazan.

**23.00:** **Rock kontzertua** Bideberrin. El Inquilino Comunista, More Experience eta Spok.

## Iturkintz Berri

Amillaga 1  
(B pabiloia)  
BERGARA

**INSTALAZIOAK:**  
**Iturkintza**  
**Berogintza**  
**Gasa**

☎ 76 28 04



DEBA  
**GARAIA**

INMUEBLE ETA FINANTZA  
AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar

T. Aranzadi, 2 behe. ☎ 76 21 80  
76 06 37





**20.00  
BITORIANATXOAREN  
JEITXIERA**



**20.00  
TXOZNEN  
IREKIERA**



**23.00  
ROCK KONZERTUA  
BIDEBERRIN**

Zeresan ugari sortu du azken asteetan Bitorianatxok. Udaletxean berrizte lanak egiten ari direla eta aurten ez zela jaietan jetxiko. Azkenean, ordea, dena konpondu da eta bai, bergarar guztion panpina maitea, Bitorianatxo, geurekin izango dugu aurten ere. Bere jetxierak Pazkuetako jaien hasiera iragartzen du eta Musika Bandak alaituta ostiralean 20.00.etan Udaletxeraino bajatuko da.

Jaiak hasi eta berehala irekiko dira Bideberrin jarritako txoznak. Gazteen topaleku, lau kontzertu izango dira bertan: ostiral, larunbat eta astelehenean jaietako egitarau ofizialean iragarritakoak eta beste bat igandean, txoznek antolatuta. Nortzuk joko duten zehazteke dago oraindik. Aurten sei txozna jarri dira, tartean, JARDUNena.

Spok (argazkian), El Inquilino Comunista eta More Esperience taldeek ostiralean 23.00etan eskainiko dute Bideberrin izango diren lau kontzertuetatik lehenengoa. Valen, Aitor (Imanolek osasun arazoak dituela eta, berak joko du bateria), Ibon, Berasa eta Imanolek osatutako taldea maketa grabatzeko asmotan dabil eta beharbada uda ostean kalean izango da.



**IZADI TALDEKO  
AHOTS GOXOA**

# Mireia OSINAGA

**Larunbateko dantzaldia  
alaituko du**



**Mireia Osinaga bergararrak 10 urte daramatza Izadi musika taldean. Urte horietan alaitutako berbenak, Euskal Herri osoan zehar egindako kilometroak edota plazaz plaza eskeinitako abestiak zenbaezinak lirateke. Larunbatean beste parada bat izango dute 11etan San Martin plazan.**

**- Mireia, zein izan da zure ibilbidea musika munduan?**

- Bueno, ia nere musika karrera guztia Izadin eman dut. 17 bat urte nituenean [orain 33 ditu] Bergararik alde egin nuen eta lehenbizi Zumarragako jende batekin egon nintzen, Anjel de Treviño bergararrarekin ere bikote bat osatu nuen... Baina ezer seriorik ez.

**- Zer eskaintzen du Izadik?**

- Denetarik jotzen dugula esan daiteke, baina beti ere publikoaren

gustoen menpe gaude. Folklorikotik hasi eta musika diskora doan guztia. Gure emanaldien lehen zatian, gaueko ordubatak arte gutxi gora-behera, gaztetxoei zuzentzen gatzaizkie eta hortik aurrera publiko helduagoari.

**- Eta zuri ze musika gustatzen zaizu gehien?**

- Ondo egina dagoen guztia. Ez daukat ezer definituta baina talde berrienak ere gustatzen zaizkit, abestiek melodia ona badute behintzat. Talde faboritorik? Zaila da. Nik gaztetan Crosby, Still, Nash and Young, Bob Dylan... entzuten nuen eta orain ba datorren guztia: Negu Gorriak, Peter Gabriel, musika klasikoa...

**"Urtean 110 bat emanaldi eskaintzen ditugu"**

**- Berbenak gora ala behera egin dute?**

- Krisiak hemen ere badu eraginik. Udaletxe eta auzoetan presupestoak murrizten doaz eta bai igartzen da krisia. Hala ere, zonaldirik onena Oiartzun, Lesaka eta inguru hori izaten jarraitzen du.

**- Musikatik bizi zarete...**

- Bai, baina lan asko egin beharra dago. Urtean 110 bat emanaldi eskeintzen ditugu. Orain hasi eta urria bitartean izaten da sasoirik onena eta gero neguan asko jaisten da; orduan bodak, igande arratsaldetako emanaldiak eta beste hainbat gauza egiten ditugu.

**- Bergarara jotzera bakarrik?**

- Noizean behin joaten naiz baina ez dut lagunekin eta asko kointziditzen. Familia bisitatu, pasealdira ditxo bat eman eta ezer gehiagorik ez. Orain gainera Udalak Gabonetan egingo den ikuskizun batean parte hartzeko eskatu dit eta herritarako zedozer izan da ilusio haundiarekin jaso dut eskaintza.



**IPIÑARRI ZERRATEGIA, S. L.**

Eraikuntza, arozaintza, altzari eta enbalaietarako "Insignis pinu", "Alerce", eta abarren egurraren zerraketa eta lanketa.

Ibarra z/g, posta kutxa 184 20.570 BERGARA. ☎ 76 15 93



# TELAETXE E. A.

## OIHAL eta OIHAL PUSKAK

Elgetarako bidea (gasolindegitik 300 metrotara, "Cotones Agirrezabal" en ondoan).

Tfnoak: 76 39 40 - 76 39 41 - 76 00 46

Faxa: 76 56 38

20.570 BERGARA



**AUKERA HAUNDIA  
OIHAL ETA OIHAL  
PUSKETAN, METROKA  
ZEIN PISURA.**

**Zetak, kortinak,  
toailak, Yakareak,  
izarak, tapizak, e.a.**

**FABRIKAKO  
PREZIOTAN!!**

**Larunbat arratsaldetan zabalik (15.00. - 19.30.).  
Goizetan itxita**

**ONDO PASA JAIK !!**





## Nire gomendioa

**A. MURUAMENDIARAZ**  
 Dendaria.

Larunbata asko gustatzen zaidan eguna da, kanpotik jende asko etortzen denez, giro polita izaten delako. Ahal izanez gero pelota partiduetara joango nintzateke eta elkarteen arteko sukaldaritza lehiaketa ere jarraituko dut, Bergaran Argiñano asko dagoelako: Elias Lete, Jabier Mendizabal "Surra", Perez Pertxakoa... animoak eman behar dizkiet ni jatun ona naiz eta. Eta gauean ba juergatxo bat, hurrengo 3 egunetan jai izaten baitut...

# Maiatzak 29

# LARUNBATA

- 09.00:** 14 urtez azpikoentzako XII. **Marrazki eta Margo Lehiaketa** librean.
- 10.00:** **Diana**, auzoetatik hasi eta San Martin Plazaraino. Bolutik, **Kobok** dultzaineroak; Labegaraietatik, **Iosu eta Iokin** soinu-joleak; Oxirondotik, **Udal Txistulari Banda**. Guztiak bat eginda, Mizpirualdera bisita.
- 10.00:** **Xake partidak** haurrentzako Xake Elkartearen Zabalotegiko aretoan.
- 12.00:** Elkarte Arteko **Sukaldaritza Lehiaketa**, Simon Arrieta Plazan duntzainero, trikitalari eta txistulariek alaituta.
- 16.00:** **Xake** azkarreko Euskadiko Txapelketa eta "Adiskidetasun Klub"en xake zirkuitoa Seminarioan.
- 16.30:** **Pelota partiduak** frontoian.
- Ansotegi-Astarloa / Arteaga-Galardi.
  - Urionaguena-Galarza / Etxaniz-Tolosa.
  - Gabilondo-Buenetxea / Loiarte-Alberdi III.
- 17.00:** **Globo aerostatikoa** Ipintzan.
- 17.00:** **Bonba japoniarrak** San Martin Plazan.
- 19.30:** **Erraldoi, kiliki eta buruhaundien kalejira**, Udal Txistulari Banda eta Kobok dultzaineroek alaituta.
- 20.00:** **Xamatx** dantza taldeak emandako Euskal Dantzen Ikuskizuna, San Martin Plazan.
- 23.00:** **Golden Apple Quartet** laukoteak "Godspel" musika eta **Duo Plaentxik** Hego Amerikako musika abestuz, kontzertua Mariaren Lagundian.
- 23.00:** **Izadi** taldeak alaitutako dantzaldia, San Martin Plazan.
- 23.00:** **Rock kontzertua** Bideberrin: Cancer Moon, Angiolillo eta Requiem. Cancer Moon (Bilbo-Eibar) ez da Euskal Herrian zuzenean sarritan ikus daitekeen taldea. Beraz, aukera ezin hobea azken urteetako talderik interesgarrienetarikoa ikusteko.



## ETXEBERRIA

**ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA**

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65  
 BERGARA

## ZAPELAITZ

*Taberna*

Eguneko menuak  
 asfelehenetik ostiralera

San Lorentzo 25, BERGARA





**10.00:  
DIANA KALEETATIK  
ZE HAR**

**Kobok Bergarako dultzaineroek, losu eta lokin soinu-joleek eta Udal Txistulari Bandak larunbat goizean diana egingo dute auzoetatik hasi eta herri erdiko kaleetaraino.**


**Jaietako bigarren eguna indarrez eta alaitsu hasteko modu ona dudu barik. Lo bazaude, ostera, mesanotxean daukazun despertadore petral horrek ateratzen duen zarata nazkagarria baino askoz ere goxoagoa, dultzainaren hotsa.**

**Ala ez?**



**12.00:  
SUKALDARITZA  
LEHIAKETA**

**Sukaldaritza Lehiaketa jaietako programan aspaldian agertzen ez zen ekitaldia da. Aurten ordea, berreskuratu egin da ohitura galdua eta larunbatean 12.00etan jokatu da elkarteen artean, Simon Arrieta Plazan. Argazkian, 1979an azken aldiz antolatu zeneko eguna, Pertxako Felixin, Guti, Txurruka eta Eguren ikus ditzakezue.**



**23.00:  
GOLDEN APPLE  
QUARTET**


**Golden Apple Quartet, laukoteak eta Duo Plaentzik kantaldia eskainiko dute larunbatean 23.00etan Mariaren Lagundiko Aretoan. Donostiarrek ospea lortu dute Antena 3eko Nieves Herreroren programan ostegunero egiten zuten Godspell saioarekin. Aukera baduzue ikustera joan zaitetzte, ez zarete damutuko.**



**HIKA TALDEKO**  
**KOMIKO**  
**BERGARARRA**

# Mikel LASKURAIN

"Txarlotadak" kale antzerkia  
 emango du igandean



**Mikel Laskurain**  
**bergararrari ere suertatu**  
**zaio jaietan lan egitea.**  
**HIKA antzerki taldeak**  
**herriko kaleak hartuko**  
**ditu igande gauean,**  
**Charlot pertsonaiaren**  
**eskutik, haur, gazte eta**  
**nagusien artean irrifarrea**  
**pizteko asmoz.**

- Lehen Chaplin tropela,  
 orain Charlotadak... Chaplinen  
 jarraitzaile amorratuak al zare-  
 te?

- Bai, nahiko gustora sentitzen  
 gara pertsonaiarekin. Erreto haun-  
 dia izan da zineko pertsonaia hain  
 ezaguna teatrora pasatzea, neurri  
 haundi batean, kamara azkarraga-  
 tik delako ezaguna. Clown totala  
 da eta oso sinpatikoa eta ezaguna.  
 Chaplin asko daude eta taldeko  
 aktore bakoitzak bere Chaplina  
 landu behar izan du; Chaplin ka-  
 broia, enamoradizoa...

- **Beti umorearen bidetik...**

- Bai, trajediek eta ez digute

ezer esaten eta orainarteko lan  
 guztiak alde horretatik joan dira.  
 Hala ere gai eta estilo ezberdinak  
 landu izan ditugu: infantilak (Agu-  
 ro), antimilitarista (Chaplin trope-  
 la, mutua) edota comic antzeko  
 bat (Eta ohea egin gabe).

- Zinean ala teatroan gusto-  
 rago?

- Teatroan, horretatik bizi naiz  
 eta. Zinea datorrenean ondo baina  
 ezin zara egon itxoiten zinetik bizi  
 izateko. Zinean teatroan irabazten  
 duzuna baino 4 bider gehiago ira-  
 bazten duzu eta teatroan aldiz lana  
 askoz ere haundiagoa da. Antzer-  
 kian erresistitzen duenak nahikoa  
 egiten du: lana nahi beste baina  
 "trabajo remunerado", eskas.

- Zinean agerralditxo batzuk  
 ere egin dituzu...

**"Ezin zara**  
**itxoiten egon**  
**zinetik bizitzeko"**

- Bastante suerte euki dut bai  
 Huntza, Entretiempo eta Vidax  
 imaginarias kortoak eta Santa Cruz  
 apaiza (nire lehen kontaktoa zine-  
 arekin), Vacas (nahiz eta azkeneko  
 muntaian ez agertu) eta orain La  
 ardilla roja.

- Kritikak ez dira onegiak  
 esan, Medemen azken filmea-  
 rekin...

- Periodikuak ez dut uste ondo  
 portatu direnik. Oso jende gutxi  
 ezagutzen dut filmea gustatu ez  
 zaiona. Juliok berak nahi zuena  
 egin du eta neri ere asko gustatu  
 zait. Eta nerekin estreinura joan  
 ziren denei ere bai.

- **Aurrerako proiekturik?**

- Beste lan bat gertatzen ari gara.  
 "Ongi-etorri, etsai hori". Bi anaier  
 istorioa da; batak alde egiten du  
 (ni) eta 10 urte igaro eta gero  
 bueltatzen da. Orduan aktoreek eta  
 publikoak ongi-etorria prestatzen  
 diote eta ni helikopteroan heltzen  
 naiz. Baina hobe ezer gehiagorik  
 ez aurreratzea...

**AGENTZIA:**  
**J. ELKORO**

Ibargarai 2, behea  
 Tfnoa: 76 57 85  
 BERGARA

ZURICH

VITA

UNIBER

CAUDAL



HISPANA

**ZURICH TALDEA ASEGURUAK**

**Mari Carmen**  
**ARRAINDEGIA**

**Arrain freskoak,**  
**izoztuak eta mariskoak**

Kruz Gallastegi  
 ☎ 76 15 90 / 76 40 73



# ARDATZA

## Brikolaketa

### **ATEAK**

**11. URTEURRENEAN,**  
eskaintza berezia:  
uztailean ATEAK prezio ezin  
hobean!!

### **BRIKOLAITZARAKO MATERIALEK**


Neurrira ebakitako tableroak

### **HORMA ARMAIRU ETA OSAGIAK**

Apalak, kajoiak...

### **KOARDROEN ENMARRAZIOA**

SARRAILAK, MANILAK...



### **BIT ALTZARIAK**

Apalategiak,  
oinetakoentzako  
armairuak, HIFI  
ekipoentzako  
armairuak...

**ERA  
GUZTIETAKO  
MOLDURAK ETA  
ZOKALOK**





## Nire gomendioa

NATALIO JUARISTI  
Jubilatua.

# Maiatzak 30 IGANDEA

Gu abeslariak garenez, kontzertua gustatzen zaigu asko. Meza entzun eta kontzertura. Zezenen asunto honekin, ni ez naiz zezenzalea izan behin ere baina andriakin Gasteizeko Blanca jaietara joaten nintzenean, plazara bidean, kuadrilen artean sortzen zen giroa benetan ikusgarria izaten zen. Hala ere, pena da goizeko ekitaldietan jende gutxi izatea. Jendea berandura arte ibiltzen da eta igartzen da... Lehen gauzak goizago egiten ziren.

- 08.30:** **Alborada**, Udal Txistulari Banadrekina.
- 09.00:** **Entzierroa** Barrenkaletik San Martin Plazaraino. Ondoren, enbolatuak Jupiter Txarangak alaituta.
- 09.00:** Lehen eta 2. mailako afizionatuentzako LVII. Pentekoste Saria **Txirrindulari Lasterketa**.
- 09.00:** "Bergara Hiria Saria", Taldekako **Xake Txapelketa**, Seminarioan.
- 11.00:** **Meza Nagusia** San Pedron Udal Batzaren partaidetzarekin, Udal Musika Banda eta Udal Txistulari bandarekin.
- 11.30:** 14 urtez azpikoentzako Euskadiko XVI. **Dantza Askatu Txapelketaren** kanporaketak Fraiskoizuri Plazan.
- 12.00:** VIII. Literatur Lehiaketaren sari banaketa ekitaldia, Zabalotegiko aretoan.
- 12.30:** **Udal Musika Bandaren** kontzertua Espoloian. Ikus egitaraua aldamenean.
- 16.00:** **Haurrentzat tailerrak**, San Martin Plazan.
- 16.30:** **Pelota partiduak** frontoian.  
• Goñi-Oregi / Balerdi-Urrutia.  
• Unanue-Errasti / Koka-Zezeaga.  
• Kalonge / Badiola.
- 17.30:** **Zezenketa:** San Martin Plazatik Zezen Plazaraino kalejira Musika Eskolako Gazteen Bandaren eskutik eta ondoren txekorketa.
- 18.00:** 14 urtez azpikoentzako **Euskadiko XVI. Dantza Askatu Txapelketa** Fraiskoizuri plazan.
- 19.00:** **Jupiter txarangarekin** kalejira.
- 22.00:** **Suzko Zezena** San Martin Plazan.
- 22.30:** Hika taldearekin "Txarlotadak" **kale antzerkia** San Martin Plazan.
- 23.00:** **Dantzaldia**, Nueva Alaska taldearekin Espoloian.

## KONDE PANADEROKUA



Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

## IGARO

- ✓ Kosmetika eta oparigaiak
- ✓ Eder gela
- ✓ Bio Solariuma

Barrenkale 35, Tfnoa; 76 17 27

## BOLINTXO

### Okindegia

San Juan auzoa ☎ 76 16 93 BERGARA  
Ibarrekruz 4, EIBAR  
☎ 79 63 42 ARRASATE





**12.30:  
MUSIKA BANDAREN  
KONTZERTUA**



**17.30:  
ZEZENKETA**



**23.00:  
DANTZALDIA:  
NUEVA ALASKA**

**Udal Musika Bandak kontzertu bikaina emango du Espaloiko zumardian. Egitaraua: J. Straussen "Saguzarra" obertura, J. Guridiren "Ezpata-Dantza" Amaiarena, A. Menkenen "Ederra eta Piztia" Soinu-banda., A. Dvoraken "Dantza Eslaviarra" 8. zkia eta Miguel Gonzalez Bastidaren "Andaluziar estanpak". Guztiak Alfredo Gonzalez Chirlaqueren zuzendaritzapean.**

**Edu Gracia eta Javier Chacon nobilleroek bina txekor toreatuko dituzte igandean 18.00etan Beheko Estazioan jarritako zezen plazan. Nafarroako Ostiz herriko Cesar Morenoren ganadutegiko txekorren izenak, honako hauek dituzue: "Fuentecillo" beltz azpizuria, "Gavioto" gorriluna eta zerrendatua, "Bertolito" beltza, "Andakojo" beltza eta "Gavioto" beltza (ordezkoa).**

**Heldutxoagoek, eskeletoa mugitzeko aukera izango duzue igande gauean Espaloian izango den dantzaldian. Ahal izanez gero, ligatu ere ligatuko du batek baino gehiagok. Nafarroatik etorritako Nueva Alaska orkestak alaituko du dantzaldia.**



# **Jon ARANBURU eta Maite LAZKANO**

**Igandean txapelari eustera**



**Maite Lazkano eta Jon Aranburu bergarar dantzariak Euskadiko Txapelketa lortzen saiatuko dira igandean, 11.30etatik aurrera Fraiskozurin. 13 urterekin badakite bere herrikideen aurrean irabaztea zer den, 1989 eta 1992an Euskadiko txapelak jantzi bait zituzten hemen bertan.**

**- Noiz eta zelan hasi zineten dantzan?**

- Gure aurretik gure anai nagusiek dantzatu dute eta asko gustatu izan zaigu beti. Beraien eskutik hasi gara biak, nik (Maite) 7 urterekin eta Jon 6ekin. Bioi familia barruan piztu zaigu dantzarako zaletasuna eta beraiek bultzatu gaituzte dantzan egitera.

**- Eta bikoteak nola osatzen dira?**

- Hori irakasleen kontua izaten

da. Elkarrekin dantzatzeko proposamena egin ziguten Dani Aspiazu eta Noemi Larrañagak eta hor jarraitzen dugu. Orain Dani eta Amaia Agirre dira gure irakasleak.

**- Zenbat ordu dantzatzen duzue astero?**

- 4 bat ordu asteen eta aste honetan zerbait gehiago txapelketa daukagulako. Gogorra den? Bai, txapelketetara ondo prestatuta joan behar duzu, bestela hobe ez joatea. Maiatzetik irailera arte ez gara gelditu ere egiten eta oso sakrifikatua da.

**"Txapelketetara ondo prestatuta joan beharra dago. Horrela ez bada, hobe etxean geratzea"**

**- Txapela lortzen bada gutxiago...**

- Gure asmoa irabaztea da baina bikote onak datoz eta ez da erreza izango. Irabazteko itxaropena badugu baina Hernani eta Bergarako beste bi bikoteek (Irantzu Lizarralde-Xabier Egidazu eta Ainize Oruesagasti-Gorka Salaberria) gauzak zail jarriko dizkigute.

**- Epaileek ere zeresanik izango dute...**

- Bai, denetarik egoten da. Baina txapelketa Bergaran izan arren, ez da gure aldeko abantaila.

**- Zein izan da ilusio gehien egin dizueten garaipena?**

- Ba Bergaran irabazitako Euskadiko bi txapelketak eta orain 2 urte Sestaon irabazi genuen Bizkaiko txapelketa. 28 urteko bikotearekin berdindurik amaitu genuen eta desenpatean irabazi genuen.

**- Noiz arte dantzan?**

- Kantsatu arte. Momentuz, 14 urte betetakoan, nagusien kategoriarira pasatzeko asmoa dugu.

## *Carmen Garate*

Plastikoak orokorrean, oinetakoak, opari gaiak, jostailuak, zumea...

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23

## **REMENTERIA**

### **Altzariak**

Egongelak / Logelak  
Aukera guztiak / Enkarguak

Artetale 6, Tfnoa: 76 13 29



Elkartuta JARDUN  
beharra daukagulako...

# Jaietan, JARDUN euskaraz!!

**B**

azkide kanpainari amaiera emateko jaietan JARDUNek hainbat ekintza burutuko ditu. Alde batetik, elkartearen berri emango duen bideoa eskainiko da tabernatan, eta bestalde, JARDUNen presentzia kalean nabaria izango da: San Martin Plazan, esate baterako, mahaiak jarriko dira nahi duena bazkide egin dadin, eta bai Bideberrin jarritako txoznan, zein kaleko postuetan kamisetak jarriko dira salgai. Gogoratu behar da, azkenik, Herri Bazkaria antolatu duela JARDUNek astearterako. Bazkalostea, Mikel Markez eta trikilariek alaituko dute.




Gazte gaztetataik hasi  
eta bizitza osoan zehar  
euskaraz bizi beharra  
daukagu. Hori lortu  
artean, badaukagu  
zerregina.


EGIN ZAITEZ BAZKIDE!!



# Elkartuta JARDUN beharra daukagulako...



**FERMIN KORKOSTEGI.**  
Euskararen alde lan egiteko norberaren esfortzua ez da nahikoa, geure artean elkartu beharra daukagu, horregatik dira beharrezkoak **JARDUN** bezalako elkarteak.




**LUIS MARI BELASTEGI**  
Alderdikeriak alde batera laga eta euskarak batu egin behar gaitu.

**BEGOÑA ITURBE**  
«Beste batzuk egingo dute» esan beharrean, denak inplikatu beharko ginateke euskararen alde lan egiteko.




**ALBERTO LASPIUR**  
Kalean gutxienez hamarretik bederatzi euskaraz egiten entzun arte, beharrezkoak izango dira euskara bultzatzeko elkarteak.



**DUNI OLABARRIA**  
Euskaraz bizi beharra daukagulako egin nintzen **JARDUN**eko bazkide eta jendea bazkide egitera animatuko nuke.



**MILA AGIRREZABAL**  
Euskarari bultzakada bat emateko idea oso ona iruditu zitzaidan. Horregatik egin nintzen hasiera-hasieratik **JARDUN**eko bazkide.



**ALBERTO ALTUBE**  
Euskara sentitu eta bizi egiten dugu, eta bizi az erabili eta **JARDUN** bezalako elkarteak euskara sentitu, bizi eta erabiltzeko bide bat dira.





**ENARA RUIZ DE EGINO**

Oso beharrezkoa ikusten dut **JARDUN** elkartea, batez ere gazteen artean ekintza ugari antolatzen dituelako.

**OIER BOLIBAR**

Gazteen artean erdara gehiegi entzuten da, beraz, euskararen erabilpena bultzatu beharra dago eta hortarako egokiena **JARDUNeko** bazkide egin eta kalean, etxean edota eskolan euskaraz egitea da.



**ANA MOZOS**  
Nire lan munduan euskara gutxiegi erabiltzen da.

Egoera honi buelta eman behar zaio eta, pixkanaka-pixkanaka lortzen ari bagara ere, bide luzea geratzen zaigu oraindik. Horregatik zaizkigu premizakoak euskararen aldeko herri mailako elkarteak.




**NEREA ALZELAI**

Euskarak berez ez dauka aurrera jarraitzerik ez bagara apropos euskararen alde lanean jartzen. Horregatik, euskarari bultzakada eman nahian egin nintzen **JARDUNeko** bazkide.

**MANU DIAZ**

Bergararron eguneroko jarduna euskaraz egin ahal izatea gustatuko litzaidake eta horregatik egin nintzen **JARDUNeko** bazkide.




**AINHOA AGIRREBEÑA**

Bergarar gehiengoak euskara jakin badakien arren, eguneroko bizitzan euskara erabiltzeko ohitura dutenak gutxiago dira. Hori aldatzeko, **JARDUN** elkartearen lana oso garrantzitsua da.


**EGIN ZAITEZ BAZKIDE!!**



# Elkartuta JARDUN beharra daukagulako...



EGIN ZAITEZ BAZKIDE!!



IZENA.....  
ABIZENAK.....  
HELBIDEA.....  
HERRIA.....  
ADINA.....  
TELEFONOA.....

BAZKIDE KUOTA: **4.000** pzta. URTEAN. (IKASLEEK **500** pzta.)

MOZTU ETA BIDALI JARDUN  
ELKARTERA (MASTERREKA 13.  
76 08 19)



# "MULTISOLEKIN, ZU ERE MODAN JARRIKO ZARA"



Ez zaituz itzalean geratu! Jar ezazu zure begirada modan. Ezagutu itzazu MULTIOPTICASen Multisol diseinu berriak. Ausartak, egun-egungoak, erakargarriak... baita beren prezioa ere: 1.500 Pta. Multisolekin, zu ere modan jarriko zara. Begira, begira! Eta orain, Multisolak erostean, pin bilduma bat oparituko dizugu.

*Luis Vargués*



**1.500 pta. n**



**Ibarra kalea, 6**  
**☎ 76 19 40**  
**20570 BERGARA**

**ALTOS HORNOS DE BERGARA E. A.**

**ALTZAIRUGINTZA ETA LAMINAZIOA**





# Nire gomendioa

EVA GONZALEZ ETA NURIA GONZALEZ. Ikasleak.

# Ekainak 1 ASTELEHENA

Guri dana gustatzen zaigu eta haurren egunean barrakak merkeagoak jartzen dituzte. Oso ondo daude: dragoia, igela... eta lagunekin primeran pasatzen dugu. Egunean zehar gora eta behera ibiltzen gara eta gauean ba dantzaldira, mutilekin dantzatzera. Ordurik? Oraindik ez digute etxean esan baina ordubiak aldera etxera bueltatu beharra dago. Guk zertxobait gehiago aprobeztatuko genuke gaua baina...

**08.30:** **Los Incansables** txarangak alaitutako kalejira.



Los Incansables.

**09.00:** **Entzierroa** Barrenkaletik San Martin Plazaraino. Ondoren, enbolatuak.

**11.30:** **Haurrentzako jolasak** Seminarioan. Karrak, gaztelu puzgarriak...

**11.30:** Arratsaldeko ordu 2ak arte **barrakak** prezio merkeagoetan izango dira haurrentzako.

**11.30:** **Udal Musika Bandaren** kalejira.

**12.30:** **Udal Musika Bandaren** kontzertua Espoloian. Egitaraua:

- Bergarako Musika Eskola. A. Gz. Chirlaque
- La forza del destino. G. Verdi.
- La Verbena de la Paloma. T. Bretón.
- Ballet Parisien. J. Offenbach.
- The Battle of Jericho. J. Penders.

**16.00:** Arratsaldeko sei t'erdia bitartean, **Haurrentzako jolas parkea**, Seminarioan.

**16.30:** **Pelota Partiduak** frontoian.

- Retegi III.-Andueza VI. / Lujanbio-Alberdi
- Tolosa III.-Retegi IV. / Lejardi-Aldazabal.
- Gabilondo / Badiola.

**18.00:** **Herri Festa** Zezen Plazan, Los Incansables txarangak alaituta.

**20.15:** **Los Incansables** txarangarekin kalejira.

**23.00:** **Tarantela** taldeak alaitutako **Kanp Dantzaldia**, San Martin Plazan.

**23.30:** **Rock kontzertua** Bideberrin. Bap. Daxka eta Fucking What!

Harategia - Urdaitegia



Komenio kalea, 2 ☎ 76 10 72

**ARIZNOA**  
**Taberna**

- Gosariak •
- Pintxo bero eta hotzak •

Irala 1, BERGARA ☎ 76 52 30

**JOSEFINA**

- Ezkongaiak orrazten eta ile-mozketa modernoak egiten espezialistak gara.
- Masajeak, solariuma, perikura, estetika...

Espaloia 4, ☎ 76 35 38





**09.00:  
ENTZIERROA**



**11.30:  
HAURRENTZAKO  
JOLASAK**



**23.30:  
ROCK KONTZERTUA**

San Ferminetan bezala, entzierroa. Ohiturak agintzen duen moduan, periodikua eskuan (Berrigara ere erabil dezakezue) hartu eta txekorren aurrean abiada bizian korrika hasi Barrenkale, Bidekurutzeta eta Ramon Maria Lili kaleak zeharkatu arte. Ataria itxita lagatzea eskatu du Udalak eta hasieran eta bukaeran etxaflero bana botako da. Markatutako ibilbidean dauden kotxeak goizeko 8etarako kendu beharko dira. Aupa mutilak!!

Hori suertea hori! Astelehenean goizeko 11 t'erdietan haurrentzako jolas parkea irekiko da Seminarioko patioan: karrak, gaztelu puzgarriak, etab. luze bat lagunekin primeran pasatzeko. Eta hori gutxi balitz, barrakak haurrentzako prezio berezietan izango dira 11 t'erdietatik ordubiak arte.

Bap, Daxka (argazkian) eta Fucking What! taldeen kontzertua izango da gaueko 11 t'erdietan Bideberrin. Bap andoaindar taldeak iaz kaleratutako diskoa sorpresa atsegina izan zen euskal musika munduan. Daxka eta Fucking What! bergarar gazteek, berriz, beren azken abestiak eskainiko dizkigute. Eta musika hau "gogorregia" iruditzen zaieneztat, ordu erdi lehenago, Kanp dantzaldia San Martin plazan Taratentelarekin.



# 16 PAZKUAK BERGARAKO JAIXAK

## PERTXAKO SUKALDARIAK

# J. M. PEREZ eta Pedro EZENARRO

Larunbateko sukaldaritza  
lehiaketan arituko dira



**Aspaldiko ohituretako bat berreskuratuz, larunbatean elkartearen arteko sukaldaritza lehiaketa egingo da. Jose Mari Perez eta Pedro Ezenarrok Pertxa ordezkatzeko dute. Zortzi elkartek eman dute izena: ea nor den makailua pillean gertatzen trebeena.**

- Nola aukeratu zaituzte?
- Elkartean batzar bat egin zen eta horren ondoren Eguren presidentek ea lehiaketan parte hartuko nuen komentatu zidan (Jose Marik). Hasieran, eta Pedrori meriturik kendu nahi gabe, Miguel Lazkanorekin joateko asmoa nuen baina harek ezkontza zuela eta azkenean Pedro eta neuk parte hartuko dugu.
- Zeuek al zarete sutondoan gehien aritzen zaretenak?
- Neri (Jose Marik) asko gustatzen zait, bai. Lagunek pazientzia

asko dudala esaten didate eta bi gauza horiekin ba asko ibiltzen naiz, bai. Lehiaketa batera lehen aldiz noa. Pedro azkenekoan (1979) izan zen beste lagunekin batera. Pertxak beti garbi euki du herriak aukera emandako ekitaldi guztietan parte hartu behar zela. Pena da garen elkarte guztiendako hain gutxi izena ematea.

- Larunbaterako errezeta majikorik?

- Ez, bat ere ez. Ahaleginak egingo ditugu ahalik eta onduen

**"Ahaleginak egingo ditugu ahalik eta onduen gertatzeko baina saria lortzeko asmo barik. Etortzen bada ondo"**

gertatzeko baina saria lortzeko asmo barik. Ailegatzeko bada, ongi-otorria. Ez gara faboritoak inondik inora, zeintzuk joango diren ere ez dakigu eta.

- Zuen espezialidadea al da makailua? Aukeratu menu bat jaietarako.

- Nik (Jose Marik) adibidez. Pazkua iganderako, nahiago dut entremesak, arrain zopa bat, solomilloa eta melokotoi puddinga prestatzea. Nik (Pedrok) legatza saltsan edota okela gisaua, reineta sagarrak eta ardu beltzak.

- Eta juerga osteko egunerako aproposena?

- Zedozer arina. Berakatz sopa batzuk, normal gertatuta, eta gainera arrain zati bat edo horrelako zerbait.

- Eta zezen korridako zezenekin zer pretauko zenukete?

- Hor ez dago dudarik, gisau on bat. Herri bazkarirako? Ez dut usteko horrenbesterako emango dutenik...

## MEKOLALDE TABERNA

*Jai zoriontsuak pasa ditzazuela*

MEKOLALDE

☎ 76 50 18

**JOSE  
LUIS  
eta  
MIKEL  
URTEAGA, 6**

Besaulki eta tresiloen konponketa eta tapizaketa. Etxebarruen dekorazioa

☎ 76 07 23 / 76 50 37 / 79 35 17





# COMERCIAL BRUNET



Ozaeta 11-13 ☎ 76 31 52 BERGARA

**ROYAL 43**

**ROYAL 43 S**

**ROYAL 48 S KAWA**



78.889 pzta.




56.958 pzta.

(BEZ barne)



87.750 pzta.



64.790 pzta.

(BEZ barne)



143.932 pzta.



107.761 pzta.

(BEZ barne)



## BERGARAKO UDALA

### DENBORA LIBRERAKO AUKERAK

- Adin guztietarako kirola
- Euskara ikasteko laguntzak
- Afizioak lantzeko aukera ugari
- Haurrentzat aktibitate propioak
- Hezkuntza eskaintza zabala



☎ 76 39 42




☎ 76 39 42



KULTURA ZERBITZUA

☎ 76 44 46





## Nire gomendioa

JOSE ANGEL ROIGE  
Udaltzaina

Martitzena egunean zehar aprobetxatu behar da, hurrengo egunean jendeak lan egin behar duenez, gauean giroak pixkat behera egiten duelako. Nik, hasteko, entzierroa gomendatuko nuke. Ondoren kuadrilarekin juntau, poteotxo bat egin eta kanpoan bazkaldu, etxean behintzat ez. Arratsaldean kuadrilen jokuak ondo egon daitezke giroa pizteko eta baita herri trenean bueltatxo bat ematea. Azkenik, errekak ura ekartzen badu, baltsen lasterketa ere ikusi.

# Ekainak 2 ASTEARTEA

- 09.00:** **Entzierroa** Barrenkaletik Zezen Plazaraino. Ondoren enbolatuak.
- 11.30:** Oilagorra elkarteak antolatutako **Plater Tiraketa** San Juanen.
- 11.30:** Arratsaldeko ordu 1.30a bitartean, **Herri Trenaren** ibilera kaleetatik zehar.
- 11.30:** Jardun Elkarteak antolatutako **Brusa Lehiaketako** brusa, argazki eta esaldi guztiakin erakusketa Simon Arrieta Plazan. Ondoren sari banaketa.
- 12.00:** Aranzadi Ikastolako **dantza taldeen erakustaldia** San Martin Plazan.
- 14.30:** Jardun Elkarteak antolatutako **Herri Bazkaria**.
- 16.30:** **Pelota partiduak** frontoian.  
• Soroa III.-Astarloa / Ansotegi-Oregi.  
• Pentekoste Txapelketako finala.  
• Urzainki-Errasti III. / Intxaurren-Andueza V.
- 17.00:** Gaueko 9ak bitartean, **Herri Trenaren** ibilera kaleetatik zehar.
- 18.00:** **Kuadrilantzako jolasak** Zezen Plazan Los Incansables txarangak alaituta.
- 20.00:** **Los Incansables** txarangak alaitutako kalejira.
- 20.00:** Eguzkik antolatutako **Baltsa lasterketa** Deba Ibaian, Estazinoko zubitik Santa Marinakoraino. Sariak:  
• Lehenengoari: 15.000 pzta.  
• Baltsa originalenari: 15.000 pzta.
- 23.00:** **Basakabi** taldeak alaitutako dantzaldia San Martin Plazan.
- 24.00:** **Bitorianatxoaren igoera** San Martin Plazan.
- Xafre eta Zaharra eta Iosu eta Iokin** trikitilari bikoteek eta **Los Incansables** txarangak kaleak alaituko dituzte egun osoan zehar.

HARATEGIA - URDAITEGIA

## Sebastian Imaz

Bildotsa, txahala eta  
oilazkoak

Harane Erreka, 1  
76 32 67 BERGARA

## BERGARESA MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Uriarte, 8 ☎ 76 11 99 / 76 14 27  
Faxe: 76 04 77 BERGARA

## BELENGUA Taberna

Pintxoak, kafeak...

Ozaeta 12 ☎ 76 20 24





**11.30:  
BRUSA  
LEHIAKETA**

**Ea nor azaltzen den guapoen eta alkondara dotoreenarekin!! JARDUN Elkarteak antolatutako Brusa Lehiaketako brusa, argazki eta esaldi guztiakin erakusketa zabalduko da Simon Arrietan 11 t'erdietan. Ondoren sari banaketa egingo da eta, jakin ahal izan dugunez, ez dira sari batere makalak. Baietz, ikusiko duzue... Sin falta apuntatu zaitetzte, ez zarete damutuko eta.**



**12.00:  
DANTZA  
ERAKUSTALDIA**

**Animoak ez du jeitsi behar eta horretarako egokiena dantzari eustea. Aranzadi Ikastolako dantza taldeen erakustaldia izango da eguerdiko 12etan San Martin plazan. Gaztetxo hauek Euskal Herri osoan zehar beren maila erakusten dihardute eta orain herrian bertan beren lana apreziatzeko aukera izango dugu.**



**20.00:  
BALTSA  
LASTERKETA**

**Honek ez du zerikusirik Oxford eta Cambridgen arteko lehiarekin baina Eguzkik iragarritako baltsa lasterketa beste klasiko batean bihurtzen ari zaigu. Parte hartzeko punta-puntako teknologiarik ez da eskatzen eta ekolojismoaren alde ur gainean flotatzen duen edozer gauzak balio du. Gainera, irabazlearen sariaz gain (15.000 pta), baltsa orijinalena ere sarituko da (15.000). Hasi burua kantsatzen!**



# GURPIL GAINEKO ERAGINKORTASUNA


Guipuzcoanan, gure lehen helburua zerbitzu oso eta eraginkorra eskaintzea da.



Horretarako garraio sare logistiko arin eta dinamikoa daukagu enpresen eskuetan.



Antolakuntza osoa, bere 57 ordezkartzen bidez estatu mailako hedapena duena.



Egunez egun enpresa lanetan agintzen diren beharrei erantzuteko.



Gure eraginkortasuna gurpil gainean ibil dadin.

**EGAÑABERRI**  
E. M.

SAN JUAN AUZOA, Z/G  
☎ 76 36 42  
20570 BERGARA



**GUIPUZCOANA**

*Paketean garraio eta banaketa*




## BERGARAKO JAIXAK

### IBILGAILU ZAHARREKIN MAITEMINDUTA

# Agustin LAZPIUR

Ekainaren 12an Bergaran  
egingo den kontzentrazioan  
hartuko du parte



**Agustin Lazpiur bergararra kotxe eta moto zaharretan aditua du. Bergara Racing taldeak iragarritako aintzinako ibilgailuen erakusketan bere lanaren eta esfortzuaren fruituak ikusteko aukera paregabea izango du.**

- Noiztik duzu ibilgailu zaharrek kolekzionatzeko zaletasuna?

- Mekanikook beti izan gara kotxe eta motozaleak. Gainera familiako guztiek izan dute horretarako afiziñoa. Jose Telleriarteri bere Opel LG-12a (1933.ekoa) orain 15 bat urte erosi eta kolekzionatzeari ekin nion (10 bat moto eta 2 kotxe). Pentsaizu zelan izaten diren gauzak: nere aitak (Jose) eta Bixente osabak lagundu zioten Telleriarteri Bilbora kotxea erostera eta gero kotxeak nere eskutan amaitu du. Tartean Iñaki Agirrezabal izan zen kotxearen jabea.

- Erabiltzen al dituzu?

- Moto klasikoekin irteera bat egiten dugu hilean behin eta 15-20 bat lagun biltzen gara. Urte osoan zehar ibiltzen gara eta edurra ere tokatu zaigu noizbait. Horrez gain, uztailaren 17an Aranón (Nafarroa) kotxe eta motoen kontzentrazioa izaten da eta Gasteizen kotxeena bakarrik. Orain, Gorla eta San Martzialeko (Irun) moto igoeretan moto klasikoekin igoerak ere antolatzen dituzte asmotan gabiltza eta badut proba horietara joateko Ossa bat...

- Zeintzuk dira dituzun piezarik preziatuenak?

- Kotxeetan Opela. Renault 4-4a ere oso polita da baina Opelagandik zerbaite berezia sentitzen dut. Eta motorretan bi klasifikaziño

**"Norberak  
ibilgailuak  
berriztatu ezker  
ez da garestia"**

egingo nituzke: espainoletan Montesak ditut gustokoekin eta ingelesetan, berriz, Triumphak.

- Afizio garestia al da?

- Norberak ibilgailuak berriztatu baditu, ez. Beste batengana jo ezker ba, bai: berriztapena 200.000 pta. izan daiteke. Asko gustatu behar zaizu eta lan asko egin, baina zaletu asko dago. Bergaran ere badira: Serafin eta Ion Linazisorok gauza politak dituzte. Eta badira aspaldian atzetik nabilen 4 bat kotxe Bergaran, baina oraingoz ez dut erosterik lortu.

- Eta piezak lortzeko nora jozten duzue?

- Hortan ingelesak dira maisuak: pieza zaharrak egitera dedikatzen diren enpresak daude, berriztatutako kotxe eta motoak saltzen dira, moto zaharrak (edota montatutakoak) berriz matrikulatzeko aukera dago... beste mundu bat da. Estatuan Kataluina da pieza zaharrek gehien tratatzen den tokia. Kontaktoak edukitzea oso inportantea da.

**GISASOLA** BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

Pedro Deuna 8, Tfnoa: 76 27 70 BERGARA

**Siaska**

Dena zure  
haurrarentzako

Pedro Deuna 10, Tfnoa: 76 10 39



# EKAINA, UZTAILA ETA ABUZTUAN IKASLEENTZAKO ESKAINTZA BEREZIA:

- Gutxienez 4 pertsonako taldeak.
- % 50ko deskontua pertsona bakoitzeko.
- Izen ematea doan.

## AKTIBITATE DENAK, GUZTIRA:

Helduak: 4.500 pzta.

Haurrak: 3.000 pzta.

Urte guztia: 37.000 pzta.

## INSKRIPZIOA:

Helduak: 5.000 pzta.

Haurrak: 3.500 pzta.

**Aranerreka  
BERGARA**

## INFORMAZIO GEHIAGO:

☎ 76 51 20

MANTENIMENDUA	DANTZA	GIAR LANA	SQUASH-A
KARATEA	<b>GIMNASIOA</b>  B · O · L · U	AEROBIC-A	
BALLETA		BOXEOA	
TABERNA	PRESAUNA SAUNA	HIDROMASAJEA	ESTETIKA

# MOTA GUZTIETAKO INSTALAZIOAK

Koldo Elizalde, 8 BERGARA ☎ 76 00 00

ELECTRICIDAD

**ELKAR**

ELEKTRAGINTZA

☎ 76 00 00





# NOLA IGAROKO DITUZU JAIKAK?

PAZKUAK 23  
BERGARAKO  
JAIKAK



**Laida Zubia**  
16 urte

Kalean ibiliko naiz. Sokamuturra eta rock kontzertuak ikusiko ditut, ekarriko dituzten taldeak nire gustokoak ez izan arren.




**Xabier Mujika**  
23 urte

Egun batzuetan pastelerian lan eginbeharko dut, baina bestela kaletik zehar ibiliko naiz, tabernarik taberna bueltaka.



**Nere Arrieta**  
26 urte

Saloura joango naiz, lasai-lasai pasatu nahi ditut jaiak. Hemen geratuz gero, betikoa egingo dut eta...



**Juan M. Iturralde**  
55 urte

Jaietan Bergaran geratuko naiz, kalera irten eta dagoen giroarekin disfrutatzea gustatzen zait.




**Jesus Oregi**  
30 urte

Igandean zezenketara joango naiz eta asteartean kudrilarekin bazkaria eta afaria izango ditut.



**Maria Luisa Noval**  
32 urte

Alabarekin barraketara joango naiz eta gauetan plazako dantzaldietara irtengo naiz.



**Isaac Larrañaga**  
65 urte

Betiko moduan kuadrilarekin txikiteoan ibiliko naiz eta entzierroak etxetik ikusiko ditut.



**Kontxita Bilbao**  
58 urte

Jaietan lan ugari edukiko dut etxean. Hala ere kalera irteeratxoak egingo ditut, zezenketara...




JATETXEA  
**umelaga**

San Antonio, 5 20570 BERGARA ☎ 76 20 21

**Igandean, hilak 30, zabalik**


**ONDO  
PASA  
JAIKAK!!**



PAPERDENDA

**Marcó**

Bidekurutzeta, 44  
Tel. 943 / 76 05 54  
Fax. 943 / 76 05 54  
20570 BERGARA



School of English  
BERGARA

**AURREMATRIKULAK:**

- Udako ikastaro trinkoak
- 93-94 ikasturtea

**INFORMAZIOA:**

- 10-12.30 astelehenetik ostegunera.
- 10.00.-12.30. eta 14.30.-19.00. ostiraletan.

Ibaragarai 31, barruko plaza. ☎ 76 03 53



**Urtean zehar jokatu den Eskola Arteko Kirol Txapelketaren finalak izango dira larunbat goizean Seminarioan eta Ipintzan. Guztira 900 haur inguru aritu dira lehian. Bestalde, atletismo frogak ere jokatuko dira larunbatean 10.30etatik aurrera Agorrosinen.**



## ESKOLA KIROLEKO FINALAK JOKATUKO DIRA LARUNBAT GOIZEAN

*Herriko ikastetxe ezberdinetako 900 bat haur aritu dira jokoan*

### FUTBOLA

- Benjamin maila:  
ARANZADI H - ANTZUOLA D  
Ipintzan 11.00etan.
- Alebin mutilak:  
ARANZADI A - SAN MARTIN B  
Ipintzan 12.00etan
- Alebin neskak:  
ARANZADI A - ARANZADI B  
Ipintzan 12.00etan.

### ESKUBALOIA

- Benjamin maila:  
ARANZADI G - ANTZUOLA A  
Seminarioan 11.00etan.
- Alebin mutilak:  
ANTZUOLA D - ARANZADI D  
Seminarioan 12.00etan.

### ESKUBALOIA

- Benjamin maila:  
ANTZUOLA B - ARANZADI E  
Seminarioan 12.00etan.
- Alebin mutilak:  
ANTZUOLA B - ARANZADI B  
Seminarioan 11.00etan.

### ATLETISMOA

- Bestalde, atletismo frogak jokatuco dira larunbatean 10.30etatik aurrera Agorrosinen 10 urtetik 14 urtera arteko edozeinenek parte hartu ahal izango duelarik.



**Gizon**

**Emakume**

**Barrenkale 35 BERGARA**




# SAN PEDROKO DENDARIAK


Zozketan saritutako  
zenbakia: **22.933.**

Jabeak, Lasa jatetxean 4  
pertonarentzako afaria  
eskuratuko du, hamabost  
egunen barruan boletoa  
San Pedro kaleko dendaren  
baten entregatuz gero.

## ONDO IBILI JAIETAN!!

### BISITA EZAZU SAN PEDRO KALEA



  
CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA

Guzti hau irudi berri  
baten hasiera baino  
ez da,  
profesionaltasun  
garbiko bidean.

Matxiategi, 5 - 76 57 41 - 76 57 42  
Fraiskozuri, 4 - 76 13 41 - 76 18 42





APPENIZ

**ARGAZKIAK  
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50



**ETXE-  
-AUNDI**

**Negoio bazkariak  
Ezkontzak  
Banketeak**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
OÑATI


**LARRAÑAGA  
eta ZUBIA**

**Banatzaileak**

Errioxako ardoak, olioak,  
esnea, lejiak...


Martokua 32, tfnoa: 764594

**Jaietan entzierroa ala sokamuturra nahiago?**



**Mikel Arregi**  
21 urte, ikaslea

Biak gustatzen zaizkit. Belauna ez daukat ondo baina tramu txiki bat korritzeko asmoa badaukat.




**Lorea Orgaz**  
15 urte, ikaslea

Sokamuturra. Batzutan ibili izan naiz baina entzierroarekin ez dakit atrebiduko naizen...



**Pilar Sanchez**  
22 urte, langabetua


Entzierroa gehiago gustatzen zait. Dibertigarriagoa da baina ni, badaezpada, urrun.



**Andoni Arroyo**  
21 urte, ikaslea

Sokamuturra tablau gainetik ikusi izan dut beti eta entzierroa izaten denerako etxean egongo naiz.

**MARKIEGI** Automobilak



Leizeaga, 1  
(San Lorentzo Pol. Ind.)  
☎ 76 35 09



- Edozein eratako ibilgailuen karrozeria konponketa
- Mekanika orokorreko zerbitzu berria

**ADI ORAIN:**

I. I. T. (I. T. V.)rako errebisioa doan  
(Direkzioa, frenoak, amortiguadoreak...)






***Ikastolak  
banatuta***

Beti iruditu zait eztabaidatzea aberasgarria dela, bakoitzaren ikuspuntuetatik urrun dauden pentsamoldeak ezagutu eta hobeto ulertzeko balio izaten duelako. Hala ere uste dut eztabaidan parte hartzen dutenek erabaki behar dutela nola eramango duten beraien lehia, kanpoko inolako laguntzarik gabe. Hori izan beharko litzateke behintzat ikastolen kasuan aproposena. Euskal eskolari buruzko eztabaida egitea ezinbestekoa zen, orain dela gutxi arte ez delako ezer egin eskola publikoaren alde. Dena den, euskararen arerio nagusi bezala agertu den Buesa jaunak finkatu ditu eztabaidaren oinarri guztiak eta azkenean galtzen irten direnak betikoak izan dira: ikastolak; euskara hain zuzen.

Ez dut lerro hauetan ikastola pribatu edo publikoaren aldeko jarrera hartuko, eskola bakoitzean baldintza oso ezberdinak ematen direlako. Honen adierazlea da behintzat azken egunotan ikusi duguna. Ikastola gehienek sare pribatuan gelditzea erabaki duten arren, badira publikotasunaren bidea hartu dutenak ere, orain dela gutxi arte homojeneoa zen mugimendu bat hautsiz. Arazoa ez da bakoitzak momentu zehatz batean hartu zezaketen erabakia, hau ikastolen alde ezer egin ez duen pertsona batek inposatzea baizik.

**Mikel Lizarralde**



***Jaixak***

Bergarako jaiak beti izan ohi dira urteko egutegian puntu ta aparteko tontorra. Ume koxkor batzuk ginenean ez zegoen munduan Pentekoste bezain garrantzizko egunik. Lehen mozkor gaupasak -Labegaraieta eta Osintxuko jaiekin borroka bizian- eta honelako beste gehiegikeriak "Bergarako jaixetan" hasi genituen.

Faltrika beroa eta burua auskalo non, etxerako bidea ahaztuta, egunsentia lainotsua begiradetan eta eguerdi homerikoak (itxura gordetzen ozta ozta gurasoen aurrean). Bazkalostean, salbuespenak salbu, lokamus katanotikoa ala berriz ere borrokara umore onez: kalimotxo kupel bat eta kontaezineko "aizpurutxoak" poteoan zehar.

Arratsean, ondo dextente «ikututa» ferietara kalejira zaratatsua eta, erne erne, gaueko ligeak prestatzen, nahiz eta alkandorak zeharo zikinduta izan. Koadrilako afaria sakratua izango da eta jarraian gau alaitsua, erloju gabe.

Horrela egunez egun, astelehena iritsi arte, atsedean txiki bat hartzeko, kanpoko jendea desagertzen den momentuan. Orduan jaiak bergararentzat bakarrik. Jadanik biotzerrea sekulakoa izaten omen da, ogerlekoak modu arriskutsuan gutxitu dira eta loguria haunditzen. Kaleetan zehar hainbat itzal biziirauten eta kapeludunak edozein ataritan neke guztiak uzteko ametsekin. jaiak amaitzeko ordu eskas geldituko zaizkigu eta, era berean, azken ahalegintxoak gozatzeko, burua San Martzialeko egunean finkatuta.

**Iñigo Urrutia**



**PRESOAK EUSKADIRA  
MANIFESTAZIOA**

Larunbatean arratsaldeko 8etan San Martin Plazan





## Beheko Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak.

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

Taberna Kafetegia  
**EHIZTARIAK**  
**LOS CAZADORES**  
Kafea da gure berezitasuna  
Zubieta 26, BERGARA

## BERGARA Karrozeria

Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA  
☎ 76 12 31

ARREGUI, E.M.



**AROSZTEGIA**

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
  - ATEAK, etab.
- TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
  - PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20. 76 11 73  
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38



### Comaneciren bidetik

Larunbatean Kiroldegian jokaturako II. Pentekoste Gimnasia Sarian Ariznoa bigarren sailkatu zen taldekako sailkapenean Gasteizko Aurrera taldearen atzetik. Banaka ere, Espainiako txapelketara joango diren zenbait gimnasta egon arren, bergararrek (argazkian) aurre egin zieten emaitza onak lortuz: infantiletan Amaia Ortiz de Urbina 4. sailkatu zen eta Lorea Askasibar bosgarren. Juniorretan, berriz, Amaia Arrieta 3.a izan zen, Ana Sebal 6.a eta Saioa Garitano 7. tokian sailkatu zen. Festa borobiltzeko, Ariznoak eta Aritzetak oso ikuskizun polita eskeini zuten amaiera modura. Olinpikoa!!



### Urrezko eztaiak

Vicente Unzurrunzaga eta Benita Baquedano bergararrek beren urrezko eztaiak ospatuko dituzte igandean. 50 urte pasa dira bai, Benita eta Vicente Bergarako San Pedro elizan ezkondu zirenetik eta igandean, efemerideak merendeen bezala ospatuko dute. lehenbizi meza izango dute ondoren senitartekoekin bazkaria. Pazkuak izanda, ja giroa ziurtatuta dute... Zorionak Vicente eta Benitar eta beren familia osoari!!

**PINTURAS BERGARA, S.L.**



Aranerreka, 32 behe. BERGARA.  
Tfnoa eta Faxe: 76 11 40

• INDUSTRIARAKO PINTURAK • APAINKETARAKO PINTURAK •  
• GARBIKETAK • ERROTULOAK • Etab...





□ **Antzuolarrak Berrigarán**

Antzuolako Udaleko zinegotzi batzu eta obretako bi teknikari, **Andoni Larrañaga** kirol zinegotziaren eskutik, Kultur Etxean bisitari izan genituen. Antzuolako Udalak **Olaran Etxea** eskuratu berri du bertan Kultur Etxea egokitzeke eta Errotalde Jauregia (Kultur Etxea) goitik behera aztertu zuten. Agian han ere tarteren bat utzi beharko dute herri aldizkari baterako...




□ **Alemanak Altzasun**

Larunbatean Itziarren enpresaren bat erosi omen duen aleman enpresari talde bat Altzasu Elkartearen bazkaltzen izan zen. Bergaran ere lagunak badituzte eta mendi irteera bat antolatu zuten. Karaktera autobusez igo eta handik pasian Altzasuraino. Eta gero, jakina, indarrak errekuuperatzeko orkestina batek alaitutako primerako bazkaria. Horrela, nola ez du gora egingo kanpoko inbertsioak?

**Zertan  
dihardute  
ba?**

EDU MURUAMENDIARAZ



28 urteko dantzari bergararrak 3. postua eskuratu zuen igandean Pasaian jokaturako Euskadiko XIII. Aurreku Txapelketan Mikel sarriegi beasaindarra eta Ramon Sanchez irudarraren atzetik.

UNAI ALBERDI



Club Atletico San Sebastian taldeak 17 urteko bergar hau fitxatu berri du aurtengo denboraldian Euskal herri osoan zehar jokaturako diren duatloi eta triatloi probetan beraiekin parte hartzeko.

**ETXAGI**  
**JATETXEA**

**ONDO PASA JAIXAK!!**

- afariak - bataioak -  
- jaunartzeak - eguneko menua -  
- gosariak - bazkariak -

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12



## Danak kabitzen dira?

Ama bat gaixorik zeguan oian. Estutu zan gaiñera, 40ko kalenturia zeukala konturatu zanian. Prisaka bialdu zeban bere alabatxua Artadi medikuagana. Alako gizon aundi-xari erderaz berba eññ biar jakue-lakuan, medikuaren aurrera eldu zanian, umetxuak, estu ta larri:

- Señor médico, ¡la madre está con 40 en la cama!

Artadik:

- ¡ Con 40 en la cama!, ta danak kabitzen dira?

## Babak ezin bigundu

Plentxiatar bat, forjako biargiña gaiñera, baziarduan Gila-nian bazkarixa jan naixan. Jan baiño geixago, burua mobitxu, ixilleko berbak esan eta arpegi asarratua ipintzen zeban.

Etxekoandriak esaten detsa:

- Zer, ez jatsu jana gustatzen ala?

- Zelan gustauko jatan ba! Guk, forjan, burdiñiakin saldia eitxen jona, eta emen, zuen taberna honetan, babak ezin bigundu aal iza-teko, zer arraixo eitxen dozue?

*Pedro Zelaia*



Mateo Salaberria Bergarako taldearekin ("fitxaje" eta guzti) omenaldiaren egunean.

## MATEO SALABERRIARI OMENALDIA

Gaur eskeiniko zaio Mateo Salaberria Club Deportivo Bergarako koloreak 14 urtez defendatu dituen jokalariaik hain merezia zuen omenaldia.

Arratsaldeko 5etan, Club Deportivo presidentek Klubaren urrezko domina entregatuko dio eta Usue Azkate Bergarako erreginak lore-sorta ederra. Horretaz aparte, Kontxi Bilbao klubeko abanderatuak eskuerakutsia eta zilarrezko plaka emango dio. Baina ez dira horiek jasoko dituen opari bakarrak, Pertxa elkarteak eta Realak ere eskeiniko baitizkiote berenak.


Horren ondoren Realak eta Bergarak jokatu dute aurrez aurre eta bergararren taldea sendotzeko goiko mai-

letan jokatzeko duten zenbait jokari gipuzkoar etorriko dira. Helburu horrekin izango dira Agorrosinen Larrañaga, Aranburu, Diego eta Amutxastegi eta baita Iturbe Bilbao Athletic-eko jubeniletan jokatzeko duen atezain gaztea ere.

Realaren aldetik ondorengo hauek izango dira Bergaran Iriondo entrentzailearen agindutara: Esnaola, Gorriti, Kortabarria, Ormaetxea, Gaztelu, Oiarzabal, Amas, Arakistain, Ansola, Urtiaga, Boronat, Corcuera, Uranga, Urreisti eta Muruzabal.

**Bikuña. 1973-V-31. La Voz de España.**

Asier Madinabeitia, Josune Iñarra eta Ane Goenagak hemerrotekatik bildutako notiziak








**zumelaga**

**JATETXEA**

San Antonio 5  
BERGARA  
☎ 76 20 21



**ARGAZKI**

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66



## ***GALDE DEBALDE***

**FELISA GABILONDO**

Aita Bergararra zuen Lehendakaria Jose Antonio Agirre Lekube izan zen. Bere aita Emeterio Agirre izan zen. Txokolateroa lanbidez, semeari ere, Athletikeko jokalaria izan zen denboran, lehendakari izan aurretik noski, "Txokolate" deitzen ei zioten.


**FELISA GABILONDOK jarri du erantzun zuzena eta bera dugu, beraz, aste honetako irabazlea. Berarentzako, ZUBIKUA JANTZIDENDAK emandako saria. ZORIONAK !!**

**Eta besteok segi asmatzen! Animo!!**

# **HERRAN ETXEA**

**Sukaldeko altzariak**

Matxiategi, 4. 76 37 53



**Elektragailuak, TB,  
bideoak, HIFI  
aparailuak.**

Matxiategi, 3. 76 12 22




**JANTZIDENDA**

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16





FELISA GABILONDOK jaso du aste honetan ZUBIKIUAK emandako saria.



**Zumelaga**  
JATETXEA

San Antonio 5  
BERGARA  
☎ 76 20 21

Hurrengo Galde Debaldeko saria  
ZUMELAGA JATETXEAk emango du.

# Galde Debalde

## Aste honetako galdera:

Errepide eta kamiño berriak egin ahala lehendik zeuden "kilometroak" kendu eta, berririk ipini barik urte batzu pasa ondoren, hasi dira berriz seinaleok ipintzen, harrizkoak ez baina txapa dotorezkoak oraingoan. Urtetan dudak egon badira zenbat kilometro dauden alde batetik bestera oraintxe argitu zaizkigu: Beasain-Bergara kaminoaren 23. kilometroa San Antonion ipini dute eta, bestalde, Gasteiz-Ondarroa errepidean ere ipini dituzte kilometro berriok, Santa Marina parean, bariantean, ipini dutelarik, Gasteizera Bergaratik zenbat kilometro dauden adierazten duena.

**Bergaratik Gasteizera zenbat kilometro daudela adierazten du aitaturako seinaleak?**



\_\_\_\_\_ izena

\_\_\_\_\_ abizena

\_\_\_\_\_ telefonoa

**OHARRA:** Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDEN bi sari egongo lirateke



## Pisu jaurtiketa

Kirol Zerbitzuko Atletismo Eskolak emaitza bikainak lortu zituen larunbatean Tolosan jokaturako Gipuzkoako Txapelketan: Lorea Garcia (Mariaren Lagundia) 4.a izan zen alebinen pisu jaurtiketan (2 Kg.) 8 m. eta 21 cm.kin eta Mainer Azkargorta 7.a infantiletan (3 Kg.) 8 m eta 9 cm.kin.


## Bergarak 1 Lasartek 2

Bergara K.E.ko pelota sailak 1 eta 2 galdu zuen Lasarte-Oriaren aurka Herri Arteko txapelketaren 3. kanporaketan. Ostiralean 8etan itzulerako partidua jokatu dira Lasarten.

# Bergara Igeri Elkarteko mutilen taldea Gipuzkoako txapeldun

Bergara Igerilari Elkartek oso emaitza onak lortu zituen astebukeraren, Donostian, 50 m.ko igerilekuan, jokaturako Gipuzkoako Txapelketa Absolutotan.

Mutilen taldeak lehen aldiz taldekako sailkapenean irabaztea lortu zuen (neskek orain 15 bat urte irabazi zuten) eta, horrez gain, banakako txapelketan ere hainbat domina lortu zituzten: Iñigo Gallastegik 50, 100 eta 200 m. bizkarrera probak irabazi zituen, Kepa Irizar bigarrena izan zen 50 m. brazan, Unai Alberdi bigarrena 1.500 metrotan, Gorka Gonzalez lehena 50 m.tan, 2.a 100ean eta 3.a 200 brazan, Ion Jauregi 3.a 100 m. libre eta 100 estilotan eta, parte hartu zuen neska bakarrak, Nora Olabidek, 3. postua



Igeri Elkarteko 9 igerilarik hartu zuten parte txapelketan.

eskuratu zuen 100 m. tximeletan. Errelebotan, berriz, 4x100 estilotan mutilen taldeak garai-pena lortu zuen eta 4x100 libretan 3. sailkatu ziren.

Era berean, Gorka Gonzalezek eta Ion Jauregik uztailaren 14tik 18ra bitartean Tarragonan jokatu den Espainiako

Junior Txapelketarako txartela lortu zuten.

Jesus Jauregi bergarar igerilarien entrenatzailearen hitzetan, "mutilak taldeka txapeldun izatea oso inportantea da guretzat. Nesken taldeak, berriz, behera egin du azkenaldian, neska batzuk taldea utzi baitute".

## Bergarak igoera lortu

Bergara K.E.ko 2. errejonaleko taldeak lehen mailarako igoera lortu zuen, larunbatean Grosekori 3 eta 0eko emaitzarekin irabazi ondoren (joaneko partiduan 2 eta 5 bergararren alde). Manu Diazen mutilek ez zuten denboraldian zehar eskeinitako futbola egiterik izan Agorrosinen bildutako zaletu askoren aurrean eta partiduko 3 golak (Bonik -2- eta Eliasek) 2. zatian heldu ziren. Bergarrek 2. errejonaleko txapelduna erabakiko duen partidua jokatu dute Oriokoren aurka larunbatean, arratsaldeko 6etan, Eibarko Ipurua futbol zelaian.



jolas



Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!!

BARRENKALE 27



*Deportibo  
taberna. 1955.*

**B**errogei urte bete zituen joan zen urtean Bergarako Kirol Elkartek. Honako erretratu hau handik urte gutxitara egindakoa da eta bertan Deportiboko taberna ageri zaigu. Argazkia 1955ko jaietan aterata dago eta hara zeintzu agertzen diren ezkerretik eskumara: Esteban Quintana, Maritxu Iriarte, Susana eta Sarita Quintana, Dami izeneko bat, Arantza Unamuno eta ezezaguna.

*Etepan Plazaola  
Argazkia: Maritxu Iriarte*



*Jaunartzeak  
Altos Hornosen.*

**A**ltos Hornosen, San Jose Obrero Kapilla Zaharrean, 1948ko apirilaren 25ean ateratako argazkia duzue honako hau. Esan digutenez, erretratua, eskola txikiko teilatu gainetik aterata omen dago. Hara zeintzuk diren ezkerretik eskumara:

**Aurreko ilaran:** Maria Sol Manzisidor, Ana Maria Alberdi, Pilar Umerez, Maria Asun Zubimendi, Mari Kruz izeneko bat, Milagros Lazkano, eta Arantza Garmendia.

**Bigarren ilaran:** Sta. Mertxe, ezezaguna, Jesus Idigoras, Jose Mari Zubimendi, Anton Garitano, Jose Jabier Amasorrain, Salgumendiko Jose Mari eta Elkorobarrutia.



*Etepan Plazaola  
Argazkia: Ana Mria Alberdi*



**Txuringo  
Jatetxea**

OSINTXU ☎ 76 48 63

- Menua eta karta.
- Ezkutzak.
- Jaunartzeak.
- Txerrikumeak, boldotsa eta baserriko oilaskoak labean erreta.



**ETXEBIZITZA**

Jacan udarako apartamentua alokatzen da. ☎ 76 43 98.

3 pertsonarentzako pisua alokairuan hartuko genuke. ☎ (945) 45 03 48.

Garaje bikoitza alokairuan Burdiñatan. ☎ 76 57 69/76 13 23.

Artzamendin pisua salgai ☎ 74 40 82.

Garajea salgai Iparragirre kalean. ☎ 76 28 52. Eguedian edo gauean.

Garajea salgai Ozaetan ☎ 76 56 94.

Pisua alokatzen da Zurraideron. ☎ 76 23 27.

Garajea alokatzen da Zurraideron ☎ 76 21 39.

Eroski gainean 62 m karretuko pisua salgai. ☎ 72 00 66 / 81 23 17.

Garajea salgai Urrats taberna azpian. ☎ 76 57 93.

**Pisu haundia salgai** Urteagan. Terraza, sukaldea, jangela, 3 logela... Merke. ☎ 76 50 18

**Pisua salgai** Koldo Eleizalden. ☎ 76 55 22.

**Pisu edo buardilla** bat hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 58 37.

**Garajea salgai** Bolun (1.200.000) ☎ 76 25 38

**DENETARIK**

**BMW serie 3 kotxea salgai.** Merke. ☎ 76 18 65.

Asteburuetan **Madrilera** joan-etorria egiteko laguna behar dut ☎ 79 53 12.

Disko gordun **ordenadorea** hilebete batetarako alokatu nahi nuke ☎ 76 40 54 (gauetz).

**Mendiko bizikleta** (GAC) salgai ☎ 76 47 94.

**Kanping denda salgai** (haundia). ☎ 76 26 73

**Nintendo bat salgai.** 6.000 pta. Bi mando. ☎ 76 58 93 (Unai).

**MOBYLETTE CADY motor bat salgai.** ☎ 76 54 73 (lan orduetan).

**Skiak** (1.40 zm) eta **botak** (35), saltzen ditut. Prezio ona. ☎ 76 21 64.

Bigarren eskuko **bizikleta estatiko** bat erosiko nuke ☎ 76 50 58.

**Paseozko bizikleta** (bolero) salgai. Oso egoera onean. ☎ 76 49 56.

Etxeko gela bikoitz bateko **altzariak salgai.** Egoera onean. ☎ 76 18 61.

**Motorrean ibiltzeko kasako integrala** erosiko nuke. Merke. ☎ 76 10 04.

**Ibilaldia egunean Fiat Uno** zuri bat gidatzen zuen emakumearekin kontaktuan jarri nahi nuke ☎ (94) 445 94 86. Bilbo.

**Nissan Vanette** furgoneta bat (SS-AG) salgai. ☎ 51 51 41.

4 metroko **ADRIA** karabana salgai. 4-5 pertsonarentzako. Prezio onean. ☎ 76 49 14 (gauetz).

**Haurren aulki** bat (Silver Choss) saltzen dut eta **kotxea** (Arrue) oparitzen dut. ☎ 76 32 74.

**SEGA Megadrivea** salgai. (3 jokurekin). 18.000 pza. ☎ 76 45 21 (Jabi).

**OPEL CORSA City, BIAK salgai.** ☎ 92-6201918 (Gorka). Lan orduetan.

**LANA**

**Etxeko lanak** egin edota umeak zainduko nituzke. ☎ 76 44 67 (Leire).

**AutoCAD, FP2 Informatika**n praktketan lan egingo nuke. ☎ 73 33 42.

Emakumezko batek **haurrak** zaindu eta **etxeko lanak** egingo lituzke. ☎ 76 36 06 (Marisol).

**Itzulpen** eta **interprete** lanak egingo nituzke. (Ingelesa zein alemana) ☎ 76 46 54.

**Esperientziadun** neska batek **haurrak** zaindu edota **etxeko lanak** egingo lituzke. ☎ 76 58 10.

**Hildakoak**

*Aste bonetan, asteazkenera arte, ez dugu hildakorèn berririk jaso.*

**Jaiotakoak**

*Iñaki Berroya Azkarate* maiatzak 12  
*Ion Mikel Aiestui Aristimuño* maiatzak 17  
*Mireia Manso Fraile* maiatzak 19  
*Iosu Unamuno Martinez* maiatzak 23

**AUTOPULLMANS ARABA**

**Autobusak**

**Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara**

ANGIOZAR ☎ 76 55 70





# HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Bolu, 24 behea  
Tfnoa eta faxa: (943) 76 30 57

BERGARA  
(Gipuzkoa)



**6** URTEKO  
GARANTIA

## FAGOR

Sukalderako altzariak



**Sukalde zoragarriak!**